GORABIDE 50 urte años

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín / aldizkaria

# berriak

MARZO DE 2012 | 2012KO MARTXOA

Nº 208 Zk.

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | Fax: 94 421 93 84 | gorabide@gorabide.com
autogestores-gorabide.blogspot.com | www.gorabide.com | tiempolibre-gorabide.blogspot.com | facebook.com/Gorabide

SAIOA INFORMA
SAIOA INFORMAZIOA

**Cambios para reconocer la ATP**
**BLP aitortzeko aldaketak**

pg. 4 or.



**Curso de bailes latinos en Bilbao**
**Latindar dantzen ikastaroa Bilbon**

pg. 5 or.



**Familias del 50 aniversario**
**50. urteurreneko familiak**

pg. 6 or.

# Calidad de vida familiar

## 93 FAMILIAS DE GORABIDE PARTICIPAN EN UN ESTUDIO REALIZADO POR LA UPV-EHU Y LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO



# Familia-bizitzaren kalitatea

## GORABIDEKO 93 FAMILIAK EHU-K ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEAK EGINDAKO AZTERKETA BATEAN PARTE HARTU DUTE

# Participamos en un estudio de calidad de vida de las familias de personas con discapacidad intelectual

***Realizado por la Universidad de Deusto y la Universidad del País Vasco, ha contado con la participación de 188 familias vascas, de las que 93 forman parte de Gorabide***

Recientemente, se ha presentado el *Estudio de la calidad de vida de las familias con hijos/as con discapacidad intelectual en el País Vasco*, realizado por José Ramón Orcasitas (UPV-EHU), Natxo Martínez y Almudena Fernández (Universidad de Deusto), y en el que han participado 41 familias de Álava, 54 de Gipuzkoa y 93 de Bizkaia; estas últimas, todas de Gorabide.

La investigación es parte de un Proyecto de I+D aprobado por el Ministerio de Ciencia e Innovación en 2006, en el que han colaborado seis universidades españolas con experiencia en el ámbito de la discapacidad intelectual: Universidad Autónoma de Madrid, Universidad de Sevilla, Universidad del País Vasco y Universidad de Deusto, Universidad de Las Palmas de Gran Canaria y Universidad Ramón Llull.

### Calidad de vida familiar

El concepto de calidad de vida familiar ha emergido con fuerza en la última década como un concepto decisivo, tanto para conocer el impacto de la presencia de un hijo o hija con discapacidad en las familias como para valorar el posible resultado de los servicios y apoyos que éstas reciben. Se considera integrado por siete dimensiones: bienestar emocional, interacción familiar, salud, bienestar económico, organización y habilidades parentales, acomodación familiar y, por último, inclusión y participación social.

### Participación de familias

En ese sentido, la finalidad del estudio ha sido, en primer lugar, conocer con detenimiento qué entienden por calidad de vida familiar las propias personas con discapacidad intelectual y sus familias. En esta primera fase, por parte de Gorabide han participado padres y madres, y hermanos y hermanas, en sendos grupos de discusión, así como tres personas con discapacidad intelectual a través de entrevistas individuales.

En segundo lugar, se pretendía construir un instrumento que permitiera medir la calidad de vida de las familias y que posibilitase conocer los componentes centrales de la calidad de vida de este colectivo de los que puedan derivarse las necesidades de apoyo. El resultado ha sido una escala específica para familias de personas menores de 18 años y otra para personas adultas.




> LECTURA FÁCIL
>
> 93 familias y tres personas con discapacidad intelectual de Gorabide han participado en un estudio para conocer su calidad de vida familiar. Les han preguntado si se sienten bien, si se llevan bien, si están bien de salud, si tienen suficiente dinero, si se organizan bien en casa, si aceptan bien la discapacidad y si participan en la sociedad.

### Una "foto" de la situación

En palabras del equipo que ha realizado el estudio en Euskadi, *"hemos construido una cámara, hemos sacado una foto a algunos y hemos mirado a ver qué tal queda. Así podemos entender mejor lo que ocurre para hacer las cosas mejor, y mejorar incluso la cámara"*.

Este estudio abre el camino para seguir avanzando en la mejora de la herramienta, de manera que sea sensible a los diferentes niveles de calidad de vida familiar, para mejorar la planificación, el ajuste y la provisión de los apoyos adecuados a estas familias.

# Adimen desgaitasuna duten pertsonen familien bizi-kalitatearen azterketan parte hartu dugu

***Deustuko Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak egin dute azterketa, eta 188 euskal familiak hartu dute parte; horietako 93 Gorabidekoak dira***




Oraintsu aurkeztu da *Euskal Herriko adimen desgaitasuna duten seme-alaben familien bizi-kalitatearen azterketa*, José Ramón Orcasitasek (EHU), Natxo Martínezek eta Almudena Fernándezek (Deustuko Unibertsitatea) egina. Azterketan, Arabako 41 familiak, Gipuzkoako 54k eta Bizkaiko 93k parte hartu dute; azken horiek, Gorabidekoak.

I+Gko proiektuaren zati da ikerketa, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak 2006. urtean onartu zuena; bertan, adimen desgaitasunaren eremuan esperientzia duten Espainiako 6 unibertsitate ari izan dira elkarrekin lanean: Madrileko Unibertsitate Autonomoa, Sevillako Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea, Las Palmas Kanaria Handikoako Unibertsitatea eta Ramón Llull Unibertsitatea.

## Familia-bizitzaren kalitatea

Familia-bizitzaren kalitatearen kontzeptua indartsu agertu da azken hamarkadan, kontzeptu erabakigarri gisa, bai desgaitasuna duen semea edo alaba izateak familian duen eragina ezagutzeko, bai familia horiek jaso ditzaketen zerbitzu eta laguntzen emaitza baloratzeko.

Honako zazpi dimentsioak hartu behar dira kontuan: emozio-ongizatea, familia-elkarreragina, osasuna, ekonomia-ongizatea, gurasoen antolaketa eta trebetasunak, familia-egokiera eta, azkenik, inklusioa eta gizarte-partaidetza.

## Familien partaidetza

Hori horrela, azterketaren helburua izan da, lehenik eta bat, adimen desgaitasuna duten pertsonek berek eta beren familiek bizi-kalitateaz zer ulertzen duten zehatz ezagutzea. Lehenengo fase honetan, Gorabideren izenean, aita-amek eta neba-arrebek hartu dute parte eztabaidarako talde hauetan, bai eta adimen-desgaitasuneko hiru pertsonak ere, banakako elkarrizketen bidez.

Bigarrenik, familien bizi-kalitatea neurtzeko bitartekoa sortu nahi zen, kolektibo horren bizi-kalitatearen osagai nagusiak ezagutu ahal izateko eta, horietatik, laguntzarako premiak ondorioztatzeko.

Emaitza izan da 18 urtetik beherako familientzako eskala espezifikoa eta helduentzako beste eskala bat.

## Egoeraren "argazkia"

Euskadin azterketa egin duen taldearen hitzetan: *"kamara bat sortu dugu, argazkia atera diegu batzuei eta zelan geratu den ikusi dugu. Horrela, gertatzen dena hobeto uler dezakegu, gauzak hobeto egiteko eta kamara bera hobetzeko"*.

Azterketa honek bidea irekitzen du, tresna hobetzen jarraitzeko. Horrela, familiako bizi-kalitatearen maila desberdinetan izango du eragina, familia horientzako laguntza egokien plangintza, egokitzapena eta funts-hornidura hobetzeko.

IRAKURKETA ERRAZA

Gorabideko 93 familiak eta adimen desgaitasuna duten hiru pertsonak familiako bizitza-kalitatea ezagutzeko azterketa batean hartu dute parte. Ondo ote dauden, beren artean ondo konpontzen diren, osasuntsu dauden, diru nahiko duten, etxean ondo antolatzen diren, desgaitasuna onartzen duten eta gizartean parte hartzen duten galdetu diete.

# Besteren laguntzaren premia izatearen onarpenean egon diren aldaketak

**Otsailaren 20tik, desgaitasun-maila aitortzeko, onartzeko eta kalifikatzeko 1971/1999 Errege Dekretuak ezarritako besteren laguntzaren premia zehazten zuen baremoa indargabe dago, eta, horren ordez, mendekotasun-egoera balioesteko baremoa ezarri da. Horrek esan nahi du mendekotasun-egoera aitortuta duten pertsonek egiaztatua dutela, automatikoki, besteren laguntzaren premia izatea.**

Besteren laguntzaren premia izatea aitortua duten pertsonek aitorpen horren ondorio juridiko guztiak baliatzen jarraitu ahalko dute. Eta, oraindik aurrera, pertsona batek besteren laguntzaren premia duela egiaztatzeko, mendekotasun-aitorpena izan beharko du.

### Mendekotasunak BLP egiaztatzen du

Mendekotasunaren 1. mailako I. gradua aitortuta, egiaztatutzat jotzen da besteren laguntzaren premia izatea. Hori garrantzitsua da, batez ere, gaur egun %75eko edo hortik goragoko desgaitasuna duten pertsonentzat, baldin eta mendekotasun-egoera aitortuta badute, baina besteren laguntzaren premia izatea aitortu ez bazaie.

### BLP, mendekotasunerako pasagunea

Bere aldetik, besteren laguntzaren premia izatearen osagarria aitortuta duten pertsonek mendekotasun-egoeraren balorazioa eskatu ahalko dute, beren mendekotasun-gradua eta -maila aitortu ahal izateko, honako korrespondentzia hauen arabera:

15 puntutik 29ra: I. gradua, 2. maila.
30 puntutik 44ra: II. gradua, 2. maila.
45 puntutik 72ra: III. gradua, 2. maila.

# Cambios producidos en el reconocimiento de ayuda de tercera persona (ATP)

**Desde el 20 de febrero, ha quedado derogado el baremo que determinaba la necesidad de ayuda de tercera persona (ATP) del Real Decreto 1971/1999 de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, y ha sido sustituido por el Baremo para la Valoración de la Situación de Dependencia. Esto supone que las personas que tengan reconocida la situación de dependencia pasan a tener acreditada, automáticamente, la necesidad de ayuda de tercera persona.**

Las personas que ya tenían reconocida la necesidad de ayuda de tercera persona (ATP), continuarán disfrutando de todos los efectos jurídicos de dicho reconocimiento. Y, a partir de ahora, la necesidad de tercera persona se acreditará cuando se obtenga el reconocimiento de dependencia.

### La dependencia acredita la ATP

Una vez que se reconoce el Grado I nivel 1 de dependencia, ya se considera acreditada la necesidad de ayuda de tercera persona. Esto es especialmente relevante para aquellas personas que en la actualidad presentan un porcentaje de discapacidad igual o mayor al 75%, que tienen reconocida la situación de dependencia, pero que no se les ha reconocido la necesidad de ayuda de tercera persona.

### La ATP, pasarela a la dependencia

Por su parte, las personas que ya tengan reconocido el complemento de necesidad de ayuda de tercera persona, podrán solicitar la valoración de la situación de dependencia, para que se les pueda reconocer el grado y nivel de dependencia que les pertenezca, en función de las siguientes correspondencias:

De 15 a 29 puntos: Grado I, nivel 2.
De 30 a 44 puntos: Grado II, nivel 2.
De 45 a 72 puntos: Grado III, nivel 2.

**Servicio SAIOA Zerbitzua**
Centro Ola BBK Zentroa
(Sondika)
**Tel. 94 453 90 86**



# Curso de bailes latinos en Bilbao

La asociación BizkaiSalsa ha presentado a Gorabide un programa de bailes latinos con el objetivo de proporcionar diversión integrada y normalizada que facilite el desarrollo de las personas con discapacidad intelectual, a partir de los 8 años.

Las clases se impartirán una vez a la semana, lunes o miércoles, de seis a siete de la tarde, en los locales de BizkaiSalsa en el barrio bilbaino de Zorroza. Los grupos estarán formados por un mínimo de seis personas y un máximo de 20, y el precio oscilará entre los 8 y los 20 euros al mes, en función de la cantidad de gente que forme el grupo.

Las personas interesadas pueden apuntarse llamando al **Servicio de Tiempo Libre**, de 9:00 a 17.30 de lunes a jueves, y de 9:00 a 15:00 los viernes, al teléfono **94 443 12 10**.

LECTURA FÁCIL

Si tienes más de ocho años y te apetece aprender bailes latinos, puedes apuntarte a las clases que ofrece BizkaiSalsa. Serán un día a la semana, los lunes o miércoles, en Zorroza (Bilbao). Costarán entre 8 y 20 euros, dependiendo de cuánta gente se apunte.

# Latindar dantzen ikastaroa Bilbon

BizkaiSalsa elkarteak Gorabideri latindar dantzen programa aurkeztu dio, dibertsio integratua eta normalizatua eskaintzeko, 8 eta 18 urte bitartean dituzten adimen-desgaitasuna duten pertsonen garapena errazteko.

Klaseak astean behin emango dira, astelehen edo asteazkenetan, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara, Bilboko Zorrotza auzoko BizkaiSalsaren lokaletan. Taldeak, gutxienez, sei pertsonak osatuko dute eta, gehienez, hogeik, eta prezioa 8 eta 20 euro bitartekoa izango da, hilean, taldea osatzen duen pertsona-kopuruaren arabera.

Interesa dutenek izena eman dezakete, **Astialdiko Zerbitzua**ren bidez, 09:00etatik 17:30era bitartean, astelehenetik ostegunera, eta 09:00etatik 15:00etara, ostiraletan. Telefonoa: **94 443 12 10**.

IRAKURKETA ERRAZA

Zortzi urte baino gehiago baduzu eta dantza latindarrak ikasi nahi badituzu, BizkaiSalsak ematen dituen eskoletan eman dezakezu izena. Astean behin izango dira, astelehen edo asteazkenetan, Zorrotzan (Bilbo). 8 eta 20 euro bitarteko kostua izango dute, izena ematen duen jende-kopuruaren arabera.

# Personas de nuestro 50 aniversario: familias

***Las familias fueron el origen de lo que hoy es Gorabide. Por eso, comenzamos con ellas una vista atrás que permita comparar de dónde venimos y a dónde hemos llegado***

**Begoña Corral es la madre de Santi, que tiene 45 años, y Victoria Palomo, de Andrés, de seis. Entre las experiencias de ambas, han transcurrido varias décadas de la historia de Gorabide.**

**Begoña:** Me acuerdo al principio, que no había grupos de padres, pero estábamos más unidos todos; porque ahora estamos muy unidos sólo algunos. Pero claro, entonces éramos muchos menos.

**Victoria:** Quizás, ahora venimos más a recibir servicios, no a poner el hombro para conseguir cosas. Parece que delegamos en los profesionales el trabajo que hacíais.

**Begoña:** Pero los padres solos no haríamos ni la cuarta parte de lo que hace la asociación. ¡Qué suerte tenéis de estar en esta época! porque casi se puede elegir. No hay dos casos iguales, y tenemos servicios para todos. Santi iba a un colegio particular, porque no lo iban a admitir en ningún otro colegio; ni lo intentábamos...

**Victoria:** Ahora, en cambio, hasta hemos tratado con responsables de Educación, de necesidades educativas especiales. A eso, un padre solo no llega.

**Begoña:** Si ha cambiado hasta cómo les tratan por la calle... Antes, llegaban a decir *"Pobres hijos, cuánto mejor que se hubieran muerto"*.

**Victoria:** Ahora, yo veo diferencia entre la gente mayor, que te mira con cierto desprecio, y los jóvenes, más concienciados.

**Begoña:** Esto ha sido como algo milagroso, no te das cuenta de lo que va evolucionando y lo que se va formando, hasta llegar a lo que es ahora.




# Gure 50. urteurreneko pertsonak: familiak

**Familiak dira gaur egungo Gorabideren oinarri. Hori dela eta, horiekin hasi ginen atzera begira, nondik gatozen eta nora heldu garen ikusi ahal izateko**

**Begoña Corral Santiren ama da; Santik 45 urte ditu. Victoria Palomo Andresen ama da; Andresek sei urte ditu. Horien bien esperientzien artean, Gorabideren historiaren zenbait hamarkada igaro dira.**

**Begoña:** Gogoratzen dut hasieran ez zegoela gurasotalderik, baina guztiok geunden batuago; izan ere, gaur egun, batzuk baino ez gaude oso batuta. Baina, jakina, orduan askoz ere gutxiago ginen.

**Victoria:** Orain, agian, zerbitzuak jasotzera gatoz, batez ere, gauzak lortzeko laguntza eskaintzera etorri beharrean. Badirudi profesionalei ematen diegula egiten zenuten lana.

**Begoña:** Baina gurasook bakarrik ez genuke egingo elkarteak egiten duenaren laurdena ere. A zer-nolako zortea duzuen garai honetakook! Aukeran duzue ia! Ez daude kasu berdin bi eta guztiontzako zerbitzuak ditugu. Santi ikastetxe partikularrera zihoan, ez zutelako beste ikastetxe batean ere onartuko. Saiatu ere ez ginen egin...

**Victoria:** Gaur egun, ordea, Hezkuntzako arduradunekin ere aztertu izan ditugu hezkuntza-premia bereziak. Hori ez du aita edo ama batek berak bakarrik lortzen.

**Begoña:** Kaletik jasotzen duten tratua ere aldatu egin da… Lehen, honakoak ere esaten zituzten: "Ume koitadua, hobe da hiltzen bada".

**Victoria:** Nik, gaur egun, mespretxuarekin begiratzen zaituzten nagusien eta kontzientzia handiagoa duten gazteen arteko desberdintasuna ikusten dut.

**Begoña:** Hau miraria izan da, ez zara ohartzen zeinen arinen egin duen aurrera eta zer ari den eratzen, harik eta gaur egun dena ikusi arte.




# Presentación del programa del 50 aniversario a la prensa vizcaína

En febrero, se realizó la presentación a la prensa vizcaína del programa de actividades para nuestro 50 aniversario. El acto tuvo lugar en un salón cedido por el Restaurante Serantes II de Bilbao, y contó con la presencia de representantes de la mayoría de medios de comunicación, que acogieron la información con interés.

Por parte de Gorabide, participaron el presidente Hugo Baroja, el gerente Pablo González y el autogestor Federico Gil, que acaparó gran parte de la atención de la prensa. Él fue el encargado de desgranar las actividades que se realizarán durante este año, y de contar su participación en el grupo de gestión de ideas que ha servido de base.

LECTURA FÁCIL

En febrero, se presentó el programa del 50 aniversario a los medios de comunicación de Bizkaia. Federico Gil explicó las actividades que se harán y cómo se pensaron. A los periodistas les interesó mucho.

# Bizkaiko prentsari 50. urteurrenaren programaren aurkezpena

Otsailean, Bizkaiko prentsari Gorabideren 50. urteurrena ospatzeko jardueren programa aurkeztu genion. Ekitaldia Bilboko Serantes II Jatetxeak lagatako aretoan egin zen, eta komunikabide gehienen ordezkaritza egon zen bertan; atsegin handiz entzun zuten informazioa.

Gorabideko Hugo Baroja presidenteak, Pablo González gerenteak eta Federico Gil autogestoreak parte hartu zuten. Federico Gilek eman zuen aurtengo jardueren berri eta berak ideiak kudeatzeko taldeetan izandako partaidetza kontatu zuen, programarako oinarri izan baitzen.

IRAKURKETA ERRAZA

Otsailean, 50. urteurreneko programa aurkeztu zitzaien Bizkaiko komunikabideei. Federico Gilek egingo diren jarduerak azaldu zituen, bai eta nola erabaki ziren ere. Kazetariak erne egon ziren.

# LABURRAK
# BREVES

## Novedoso servicio de respiro de fin de semana en Ola

El Servicio de Centros de Día de Gorabide está trabajando en un innovador servicio de respiro de fin de semana, de 10:00 a 21:00, que se ubicará en el Centro Ola BBK de Sondika. Financiado por la Diputación Foral de Bizkaia, ofrecerá diez plazas para personas con discapacidad intelectual, y dispondrá de una ruta de transporte para facilitar los desplazamientos de las personas usuarias.

## Asteburuetan atseden hartzeko zerbitzu berria Olan

Gorabideko Eguneko Zentroko Zerbitzua asteburuetan, 10:00etatik 21:00etara arte, atseden hartzeko zerbitzu berritzailean ari da lanean. Zerbitzuaren egoitza Sondikako BBK Ola Zentroa izango da. Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuko du, eta adimen desgaitasuna duten pertsonentzako hamar plaza izango ditu, eta garraio-ibilbidea izango du, erabiltzaileen joan-etorriak errazteko.

## Fallece Luis Mari Ormaetxea

El pasado mes de febrero falleció Luis Mari Ormaetxea, que fue miembro de la junta directiva de Gorabide en la década de los 80, y presidente de la Agrupación de Durangaldea. Descanse en paz.

## Luis Mari Ormaetxea hil da

Pasa den otsailean, Luis Mari Ormaetxea hil zen, Gorabideko zuzendaritza-batzordeko kide, 80ko hamarkadan, eta Durangaldeko Elkarteko presidente. Goian bego.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, contribuyendo así a la mejora de su calidad de vida y a la promoción de una sociedad más justa y cohesionada.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, adimen desgaitasuna duten bizkaitarrei eta haien familiei laguntzera bideratua, bizi kalitate hobea izan dezaten eta gizartea zuzenagoa eta kohesionatuagoa izan dadin lortzeko.



# 80 años no se cumplen todos los días

Como Begoña Iturriza, usuaria de la Residencia Atxarte de Abadiño cumplía 80 años el 13 de febrero, el resto de residentes y profesionales quisieron hacer que el día fuera muy especial para ella. La llevaron a la peluquería, le hicieron un precioso marco de fotos en el taller de manualidades, le compraron un *"buen y merecido regalo"* y un bonito ramo de flores, que tanto le gustan, colocaron un cartel de cumpleaños, le hicieron un paseíllo a los sones de una trikitritxa, y comieron con ella una rica tarta de cumpleaños. Fue un día tan especial, que Begoña acabó emocionada.

# 80 urte ez dira egunero betetzen

Begoña Iturrizak, Abadiñoko Atxarte egoitzako erabiltzaileak, otsailaren 13an 80 urte bete zituenez, gainerako erabiltzaileek eta profesionalek egun hori berarentzat berezia izatea nahi izan zuten. Hori dela eta, ile-apaindegira eraman zuten, eskulanen lantegian argazki-marko ederra egin zioten, "opari bikaina" eta lore-sorta erosi zioten, oso gogoko ditu-eta, zorionak emateko kartela jarri zuten, sorpresa eman zioten trikitiaren doinuaz eta urteguneko tarta gozoa jan zuten. Eguna hain izan zen hunkigarria, Begoña emozio handiz zegoen.

# agenda



## marzo martxoa

### AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

**JÓVENES | GAZTEAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 6 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:00

**ADULTOS | HELDUAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 7 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:00

**LOS ELEGANTES | DOTOREAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 21 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

**GURE AHOTSA | NUESTRA VOZ**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 28 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

### FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 27 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADOLESCENTES / NERABEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 26 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 5 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADULTOS/AS / HELDUETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 19 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

### AGRUPACIONES / ELKARTEAK

**BUSTURIALDEA** — Comisión / Komisio
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
**Día / Eguna** 14 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

**DEUSTO-SAN IGNACIO** — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
**Día / Eguna** 6 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 19:30

**ERMUA** — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua*
**Día / Eguna** 5 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 19:30

**MUNGIALDEA** — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
**Días / Egunak** los martes / astearteak — **Hora / Ordua** 20:00

**SANTURTZI** — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
**Día / Eguna** 28 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 19:00